

ELKARGOAK EUSKARAZ

21 Elkargo berria - Memoria - Akta elebidunak - Korrika hunkigarria 2022
Jakizu Nuevo Colegio - Memoria - Actas bilingües - Korrika Maiatzak 2

ELKARGO BERRIA: ONGI ETORRI!

2022aren lehen hiruhilekoan Elkargo Profesional berri bat gehitu zaigu proiektura: **Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala**. Ongi etorri, bidelagunok!

2021EKO HOBKUNTZAK

Elkargoak Euskaraz proiektuko Elkargo parte-hartzaileetan batez beste %4 igo zen 2021ean euskararen indizea. Horrek esan nahi du proiektuari esker euskararen erabilera, ahoz eta idatziz, handitu egin dela. Igoerarik handiena Administrazioekiko harremanetan sumatu da (%10); hobekuntza apalena, berriz, barruko eta elkargokideekiko harremanetan (%1). Irudian (%3), Herritarrekiko harremanetan (%2) eta Eskainitako prestakuntzan (%2) ere euskararen erabilera handitu dugu.

Elkargoarekiko harremanak gero eta elebidunagoak izateaz gain, **elkargokideek ere euskara ikasteko eta praktikatzeko ikastaroetan izena emateko aukera dute, lanean euskaraz aritzeko prestakuntza eskuragarri dute (pilulak), sustapen jardueretan parte hartzeko aukera dago (Elkargo Ekin), baliabide teknikoak ere eskuragarri dituzte (hiztegi terminologikoa, zalantza...), etab.**

AKTA EREDU ELEBIDUNA

Euskararen Txokoan (Baliabideak-Pilulak atalean) akta eredu elebiduna dugu eskuragarri, nahi dugunean deskargatu eta erabiltzen hasteko. Oso praktikoa da bileraz bilera errepikatzen diren esaldiak elebitan izatea txantilo batean, lana azkarrago egiteko. Eman begiratu bat!

KORRIKA HUNKIGARRIA

Korrika Bilbotik pasatu zenean han egon ginen Elkargoak Euskaraz ordezkatzeko, ttipi ttpa! Zorionak Korrikako parte hartzaile eta antolatzaileoi! Oso hunkigarria izan zen. Hitzek ekiteko garaia da!

Bideoa [hementxe](#) dugu ikusgai. Horren aurretik, Arkaitz Estiballes bertsolariarekin batera izan ginen Miribillako garagardotegian, hitz eta pitz. Abokatuen eta Arkitektoen Elkargoek, beste urteetan bezala, kilometro bana ere hartu genuen.



NUEVO COLEGIO: ONGI ETORRI!

En el primer trimestre de 2022 se nos ha unido al proyecto un nuevo Colegio Profesional: el **Colegio Oficial de Trabajo Social de Gipuzkoa**. ¡Os damos la bienvenida!

MEJORAS DEL 2021

En los Colegios que participan en Elkargoak Euskaraz, el índice de euskera subió de media un 4% en el 2021. Esto quiere decir que el uso del euskera, tanto oral como escrito, ha subido gracias al proyecto. El aumento más destacable ha sido en las relaciones con las Administraciones (%10); el incremento más bajo, en cambio, en las comunicaciones internas y hacia personas colegiadas (%1). En Imagen (%3), Comunicaciones a ciudadanía (%2) y en la Formación ofrecida (%2) también hemos aumentado el uso del euskera.

Además de que las relaciones con el Colegio sean cada vez más bilingües, las **personas colegiadas también tenemos la opción de recibir cursos para practicar y mejorar el euskera, formación para utilizar el euskera en el trabajo (píldoras), actividades de motivación (Elkargo Ekin), recursos técnicos (diccionario terminológico, banco de dudas...), etc.**

PLANTILLA DE ACTA BILINGÜE

En el Txoko del Euskera tenemos disponible en el apartado “Píldoras-Recursos” una plantilla para elaborar actas bilingües de las reuniones. Dicha plantilla es muy práctica para tener las frases que se repiten habitualmente. ¡Échale un vistazo!

EMOCIONANTE KORRIKA

Cuando la Korrika pasó por Bilbao estuvimos representando a Elkargoak Euskaraz, ttipi-ttpa! Fue realmente emocionante. ¡Zorionak a quienes participasteis y a la organización! Como dice el lema de este año, ¡es momento de actuar con palabras!

[Aquí](#) tenemos disponible el vídeo. Como preparación, estuvimos con el bertsolari Arkaitz Estiballes. Como cada año, el Colegio de Abogacía y el de Arquitectura también participamos con kilómetros propios.